



**2014KO MAIATZAREN 9KO
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamalauko maiatzaren bederatzian, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ez-ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Joseba Imanol Aran Barandiaran, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Ane Irastortza Izagirre, Inazio Estensoro Eskisabel eta Juan Manuel Serna Portugal.

Maialen Aldasoro Aranburu, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu Estensoro, Milagros Mardrazo Rada eta Felix Urkola Iriarte zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- LAZKAOKO UDALAREN ORDEZKARIA GOIEKIN.-

Alkateak bikurari hasiera eman ondoren, eguneko gai zerrendako puntu bakarra eztabaidatzeari ekiten zaio.

Alkateak esaten du orain arte udal honek GOIEKIn duen ordezkaria izan baldin bada ere, aurrerantzean ordezkaria Inazio Estensoro Eskisabel zinegotzia (EAJ) izatea proposatzen dela. Gehitzen du proposamen hau EAJ eta Bilduren elkarrizketen ondoren iritsitako akordioaren ondoriozko proposamena dela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du proposamena ondo iruditzen zaiola. Gehitzen du, historikoki, GOIEKIn beti mantendu izan dela indarren arteko oreka, legegintzaldi honen hasiera arte, eta beraz bide horretara itzultzea ondo dagoela, eta hemen orain egiten ari denaren antzera Beasainen eta beste herrietan egin dadin eskaria egiten diela beste alderdiei.

Guzti honen ondoren gaia bozketan jartzen da eta, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, udal honen GOIEKiko ordezkari Inazio Estensoro Eskisabel izendatzea erabakitzen du.

II.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko bostak eta hamar direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

